

BESTELAKO XEDAPENAK

HERRI ADMINISTRAZIO ETA JUSTIZIA SAILA

1396

37/2016 DEKRETUA, martxoaren 8koa, Auzitegi Medikuntzako Euskal Erakundearen lanpostu-zerrendak onartzen dituen dekretua aldatzen duena.

2012ko azaroaren 27an, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian, azaroaren 21eko 237/2012 Dekretua eman zen argitara, Auzitegi Medikuntzako Euskal Erakundearen lanpostu-zerrendak onartzeko.

2014ko azaroaren 5ean, Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiaren Administrazioarekiko Auzietako Salak (hirugarren sekzioa) 604/2014 epaia eman zuen Euskadiko Langileen Komisionen ordezkariak jarritako administrazioarekiko 1071/2012 auzi-errekurtsoan; horrenbestez, deklaratu du 237/2012 Dekretua ez datorrela zuzenbidearekin bat alde honetan bakarrik: I. eranskinean, bi lanpostu sortzen dira, anatomia patologikoan aditutako auzitegi-medikuarenak, 009 klabea berariazko ezagutzakoak.

Auzitegi Nagusiaren Administrazioarekiko Auzietako Salaren autoaren bidez, ez da onartu Euskadiko Langileen Komisionen ordezkariak 604/2014 epaiaren aurka jarritako kasazio-errekurtsoa; eta deklaratu du ebazpena irmoa dela.

Ondorioz, Herri Administrazio eta Justiziako sailburuaren proposamenez, eta Gobernu Kontseiluak 2016ko martxoaren 8an egindako bilkuran aztertu eta onartu ondoren, hauxe

XEDATZEN DUT:

Artikulu bakarra.– Onartzea Auzitegi Medikuntzako Euskal Erakundearen lanpostu-zerrendetan egindako aldaketak, dekretu honen eranskinean jasota.

AZKEN XEDAPENETATIK LEHENENGOA

Dekretu honek administrazio-bidea agortzen du, eta, beraren aurka, aukerako berraztertze errekurtsoa jar dakioko Gobernu Kontseiluari, hilabeteko epean, dekretua argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera; edo, bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jar daiteke Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietako Salan, bi hileko epean, dekretu hau argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

AZKEN XEDAPENETATIK BIGARRENA

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera jarriko da indarrean dekretu hau.

Vitoria-Gasteizen, 2016ko martxoaren 8an.

Lehendakaria,
IÑIGO URKULLU RENTERIA.

Herri Administrazio eta Justiziako sailburua,
JOSU IÑAKI ERCORECA GERVASIO.

2016ko apirilaren 4a, astelehena

MARTXOAREN 8KO 37/2016 DEKRETUAREN ERANSKINA

ALDAKETEN ZERRENDA

Aldaketa-mota: Amortizazioa

Saila: Herri Administrazioa eta Justizia

Zentro kudeatzailea: Justizia Administrazioko Zuzendaritza.

Destinoko zentroa: Auzitegi Medikuntzako Euskal Erakundearen (AMEE) Bizkaiko Zuzendariordetza

Udalerrria: Bilbao

Aldaketa-mota	Lanpostua	Dotazioa	Lanpostuaren izena	Postu-mota	Udalerrria	Betetzeko era	Taldea	Kidegoa	Titulazio akademikoa	Berriazko ezagutzak	Arduraldia	Hizkuntza-eskaintzuna	Hizkuntza-berezitasunaren data	Esperientzia	Lanpostuaren osagarri orokorra	Berriazko osagarria	Oharrak
Amortizazioa 230004	1		Auzitegi-medikua. Anatomia patologikoan aditua	B	Bilbao	B.L.	A	Auzitegi-medikua	Medikuntzan lizentziaduna	009	Esklusiboa		18.751,44	3.505,80	Guardiak		
Amortizazioa 230004	2		Auzitegi-medikua. Anatomia patologikoan aditua	B	Bilbao	B.L.	A	Auzitegi-medikua	Medikuntzan lizentziaduna	009	Esklusiboa		18.751,44	3.505,80	Guardiak		

Berriazko ezagutzak

009 Anatomia Patologikoan prestakuntza espezializatua edo Auzitegi Patologian aditu-prestakuntza, eta Anatomia Patologikoan 2 urteko prestakuntza.